

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTARONGO UDALA

Jarduera sailkatuaren lizentzia eskatzea Jendaurreko informazioa

Añanako Ekiola, S. Coop. kooperatiba sozietateak 1 MWn-ko "Ekiola" instalazio fotovoltaikoa jartzeko (1. fasea) udal lizentzia eskatu dio udal honi. Instalazio hori Salcedoko barrutiko Berocedo aurkintzan dagoen eta udalerrri horretako administrazio batzarraren jabetzakoa den 35-6-425 A eta B katastro erreferentzia duen lurzatian kokatuko da.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 51.2 artikuluan ezarritakoa betez, jendaurrean jartzeko epea irekitzen da, adierazitako jarduerak eragiten diela uste duten pertsonak Lantarongo Udaleko bulegoetan espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzaten, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Komunioi, 2025eko apirilaren 15a

Alkatea

JOSÉ LUIS SALVIDEA MARTINEZ